

EUSKALTZAINDIAREN IKER LANEZ

L. Mitxelena

Euskaltzaindia, maiz entzun dugunez, sail bitan berezia eta partitua omen da: bat bitan banatua dugu, beraz, hori ere, harako haren pentsamoldearen arabera. Eta, guztiok dakigun bezala, iker saila da horietarik bat. Gai hortaz, sail horren eginbideez, zerbait prestatzeko eskatu zidan gure Euskaltzainburuak. Hona, bada, zer gogora zaidan, luzaroan gai hori gora eta behera neure baitan erabili ondoan. Aitortu beharko dut, gainera, aski gogo gaiztoz hartu nuela, bi arrazoiengatik batipat. Ba dirudielako, lehenbizi, besteren bizkar utzi nahi nukeela nerontzat nahi ez dudana. Neure ixuriak, joerak eta gogoak agertuko ditudalako, gero, nahi eta ez, besterenak baino areago. Eta, horrela ari naizela, guztion premiak ez ditudalako, agian, behar adina kontuan edukiko.

Iker lan hori noraezekoa deritzat Euskaltzaindiak izena eta itzala gordeko eta gehituko baldin baditu. Jagon sailean har ditzakeen erabakiak eta egin ditzakeen lanek zerbaiten arrimu beharrean aurkituko baitira. Ez baita erraz, bizi garen giroan batez ere, guztion gogara aritzea; batek ontzat hartzen duena, ezin bestean, bestek arbuatuko du, eta hark zapuztuko honek goresten duena.

Sail hau, berez, merkataritzaren antzekoa da, "import-export" gisakoa, etxekoek eta herbestekoek elkarrekiko harmanetan aitzinatu behar duguna. Horrela gertatu zen Humboldt eta Astarloaren garaian; horrela, gero ere, Bonaparterenean. Horrela, azkenik, Urkixok *RIEV* gurean sortu zuenean, behialako *Revue de linguistique et de philologie comparée* eta *Euskara*-k, bata Pariskoa eta Berlingoa bestea, utzi zuten hutsartea betetzeko asmoz. Bete ere, ederki bete zuen.

Kanpokoen lanari begira egon behar genuke. Ez, ordea, alferkerian eta, Oleaga zenak esaten zuen bezala, haien lanaren begira, mana zerutik noiz jaitsiko. Tentatzen hasi behar genuke, Txirritak neska zaharrak tentatzen zituen gisan, eta ez ditugu tentabidean jarriko esku hutsik agertzen gatzazkien artean. Iker lanean eta bestetan, ematen duenak hartzen du, eta ereiten duenak biltzen. Ez bestek.

Egungo egunean, bada besterik, zorionez, Euskal herrian sail hori lant dezakeenik eta lantzen duenik: zenbait aipamen agertuko dira hemen ere beherago. Halaz guztiz, eta besteren baitan biztu den grinaz pozten delarik, ezin bazter dezake Euskaltzaindiak, inoren eskuetan utzirik, arautegiak egozten dion eginbidea. Eta ez du sekula, egia esan, baztertu eta utzi.

Hizkuntzaren aldetik euskal istudioei zor diegun neurrian eta mailan ari ote gara, ordea? Ez dut uste, eta diodan, aurre-ra baino lehen, neure burua ere ez dudala puntu honetan garbi ikusten. Maizegi gabilta, oker ez banago, beti batean, *piétinement sur place* gisako zerbaitetan, zarpa zaharrak hari zaharrez pasaratzen. Hor dugu, besterik ez aipatzeko, *gorputz* eta *soin*-ekiko eztabaida luzea, eta nik ere zerbait esan nuen hortaz. Borrokarako gogoia utzirik hotz-hotzean aztertzen badugu hauzi hori, ordea, nabari den zerbaik ikusiko dugu nekerik gabe. Bil daitezkeen argitasunik gehienak bilduak direla, eta alfer lana litzatekeela gehienbat berrien bila abiatzea, euskal hiztegian eta gramatikan horrenbeste puntu ilunberik beltzenez dauden bitartean. Iritziak, noski, ez datoz bat, baina iritzi desberdin horiek ez ditu inongo eta inolako argitasun berrik bateratuko. Bego, beraz, nor berean eta goazen beste zerbaitetara.

Aresti zenak, berriz, eta hemendik kanpora, bi hauzi larri garbitu zituen. Bata, guztiok dakigunez, *ene / neure, hire / eure*, eta horien gisakoen erabilera da, Altubek (bigarren sailekoak "intensivo"-tzat hartu zituelako edo) hain ongi ikusi ez zuena. Erabilera horren legea, egia esan, aspaldi aurkitua zegoen, Arestik berak gero ikusi zuenez. Linschmann-ek aurkitua eta Schuchardt-ek argitara emana (1), baina bestek eta nik mila aldiz eskuztatu dugun liburu baten zokorik zokore-

(1) I. Leizarragas *Baskische Bücher von 1571...*, herausgegeben von Th. Linschmann und H. Schuchardt, Strassburg, 1900. Liburu horrek, jakina da, Schuchardt-en sarrera luze bat darama: "Ueber die Einrichtung des Neudrucks, insbesondere über die Druckfehler und Varianten bei Leizarraga". Hor, lxxiv eta h., ibili zen Schuchardt argi bila, baina kolpe huts egin zuen. Azken orduan, ordea, eraskinetan (cxvii), hau eman zuen aditzera: "Ich bin am Anfang des richtigen Weges stehen geblieben; Linschmann hat die Entdeckung gemacht dass *ene, hire* nicht reflexiv, *neure, eure* reflexiv gebraucht werden. Ich kann mich nicht entsinnen diesen Unterschied irgendwo sonst erklärt gefunden zu haben, obwohl die Etymologie (*neure, eure* von *ni-haur, hi-haur*) ihn andeutet. Vielfach scheint er allerdings später verwischt worden zu sein." Altuberenak, *Erderismos*-en, 1930, 102 eta hh.

nean gordea. Bestea, niri bidenabar esan zidana, hauxe da: jakina da, eta ez da kontraexenplurik aipatzen, *deza*, *leza*, etc., ezin erabil daitezkeela soilik inongo euskalkitan, ezker aldetik *ba-* nahiz eskuinetik *-(e)n* lagun ez badute. Eta, halaz guztiz, Axularrek *diazaio* eta horren kideak soil-soilik darabiltza, beste makulurik gabe. Eta horrela jokutzen du, dudarik gabe, *diezaio* hori *diezaioke*-ren senide propioa delako: hots, inoizko [**d-i-eza-ke-(k)i-o*] baten ondorengo jatorra, eta ez sasikoa (2). Axaleko hotsak aldatu dira hor, ez adizkien egitura. Are gutiago gramatika legea.

Euskal herriko tradizio bizimodua delako hori ez da aldakuntzarik gabe iraun duen zerbait: iraultzak ere ezagutu ditu, aldakuntzak ez ezik. Edozeinek aitortuko du, haatik, azken urteotakoaren parekorik ez dela inoiz izan, Euskal herrian, eta mundu osoan. Abiatu garen bidetik bagoaz, eta hor barrena ibiliko gara dirudienez, hitzak, ohiturak, tresnak, lanbideak, piztiak eta are gizajende osoa suntsitu arte, oraindik jaso ahal daitekeena paperetan bederen jasotzeko premian gara. Zerbait eta zerbait baino gehiago egiten ari da sail horretan Euskal herri osoan, Barandiaranen eraginari esker, batez ere. Etnologoak, ordea, eta hala behar ere, bere ikusmoldeak eta ikuspuntuak ditu. Honen lanean, hitzak adierazten dituzten "gauzei" lotuak daude, eta "gauzak" zaizkio ardura, ez berez hitzak. Hizkuntzalariaren eginkizuna, berriz, hitzetan, perpausetan, esanetan datza. Honek hitzei begiratu behar die, hitzei hutsik lehenbiziko (hitzei *ut sic*, Larramendik esango zukeenez), hitzei hitz diren aldetik. Nork hartuko du, bada, arreta hori, hizkuntzalariak, eta hizkuntza zaintzeko eta aztertzeko sortu zen Euskaltzaindiak, hartzen ez badu?

Euskara bera ere ez da behin batean bezala ez ikasten ez irakasten. Euskara galdu dutenak nagusitzen ari dira, behar bada, baina era berean ari dira gehitzen euskaraz ikasiak eta landuxeak direnak. Lehen, onenean, elizgizon franko ziren horietakoak, eta laiko mordoska urri bat. Euskaldun berriak ere gero eta nabarmenago ageri dira gure artean, ez inoiz bezala ikasle eta entzule ixil eta motel gisa, baizik eta besteren eragile moduan. Pozgarri da hori, eta ez negargarri, bai-

(2) Ikus *FLV* 3 (1971). "Futuro de presente" bezala, *diazaio*, etc., *dezake*, *gai-tzake* eta abarren aldamenean datoz.

na beldur izatekoa da hizkuntzak ez ote duen, bide hortarik doala, zerbait irabazten duen bitartean, zerbait ere galduko.

Badakigu, esate baterako, aspaldidanik datozela zenbait euskalkitako azentuari edo doinuari dagozten duda-mudak eta eztabaidak. Zalantzaren iturburua egin diren iker saioen eskasean dago, noski. Baina, hortan dabilenak ongi daki badela funtsezko aski eragozpen. Egiten diren bereizkuntzak hutsaren hurrengoak dira maizenik, beharriak eta are maki- nek ere nekez jasotzen dituztenak. Hutsak izateaz gainera, aldakorrek dira (eta Altubek arrazoi zuela dirudi hortan), hitzak perpausean nozi ditzakeen tokialdaketen arabera. Hauzi hori zorionean W. H. Jacobsen-ek mugierazi du (3), eta gidari izan zuen J. Basterretxea ere abiatu da azkeneko *Fontes*-en, 6 (1974), 353-393, hain ederki ezagutzen duen Gernika aldeko hizkera alde hortatik ikertzen. Beharrik abiatu ere, doinu kontu hontan ondalana egiteko ez baitzaizkigu urte gehiegi gelditzen. Bizi diren euskaldun zaharrek, eta are zaharrenek, dute hitza gai hontan. Gazteagoek zer gorde eta zer baztertu duten gero ikus daiteke.

Doinu kontu honek badu, gainera, edo baduke bederen, zer ikusirik euskal metrikarekin. Neurriaz eta ritmoaz ari naiz erabat, neurtitzetan nahiz hitz lauz. Hortan, lege zaharrei loturik dabilzanak izan beharko ditugu erakusle, edota, horiek jakinaren gainean saihesturik, doinu berrien bila abiatu direnak. Franko baitira, zereginari begira, estiloaz kezkatu ez diren euskal idazleak (4).

(3) *Anuario del Seminario J. de Urquijo* 6, 1972 urtea daramanean. Geroztik ikusi ditut, besteak beste, Etxeberria andereñoak Donostiako E. U. T. G.-n egin duen tesina Lizarraga Elkanokoaren izen azentuaz, eta J. M. Etxebarria Deustu- an prestatzen ari dena, Zornotza-Etxano aldeko ohiturazko bizimoduaz, honek ere, A. Irigoyen-en esanera, azentuak markatzen baititu. Azkenik, eta Aita Izagirre zenaren Arantzazu inguruko gaiei nagokala *Anuario* 4 (1970), hango azentu tankerak badu berezkorik. Izagirre oken ez bazebilen, eta zuzen baino zuzenago ibili ohi zen, *gizonak* sing. eta *gizonak* pl., esate baterako, berdin ebakitzen dira: *gizónak*.

(4) Obra bakoitza idazlearen gogoak moldatzen eta itxuratzen du, hori nahi lukeen bezala beti gertatzen ez bazaio ere. Inoiz egilearen ahoz jakin dezakegu ze asmotan zebilen. Hona Kapanagak, "Prologo al lector" zelakoan, nola azaltzen duen berea: "Suplico al lector prudente, reciba esta buena voluntad no para censurarla, sino para aprouecharse, ò enseñarla, no reparando, en muchos verbos y nombres, que como estan en romance sin corromperse del latin, assi estan del romance reciuídos en el basquence, de suerte que apenas se halle otro modo de decir sino por muchos rodeos y de la misma suerte juzgo hallara otras muchas faltas en el mismo basquence, porque mi deseo no ha sido sino solo dar a entender la doctrina en nuestro lengoaje comun, asi le de Dios nuestro señor buen fin Amen."

Euskalkien azterketa ere ez da etzidamurako utzi daitekeen eginbidea. Zenbait lekutako hizkera galzorian dugulako, aurrenik, eta aspaldidaniko bereizkuntzak galtzen ari direlako, bestetik. Batasun ahaleginak premiakzko ditugu hizkuntzak iraungo baldin badu, baina, batera ahala, euskalkiak nahasten ari dira, galtzen ez badira ere. Nahasteak, aise ikusten da, beti izan dira gure artean, beti izan baitira, ugari edo bakan, eskualde bateko eta bestekoen artean har-emanak. Ez, ordea, alderatzeko ere, oraingo neurrian.

Hiztegi lanetan, nik kolpe huts egin arren, aski aurreratutako dugu, noski, bai aho hizkera eta bai hizkera idatziaren alde-tik. Azken sail honetan, Villasantek ederki erakutsi du zer den, eta zenbat balio duen idazle baten hiztegi *osoak*. Gure saioetan inon makurrik ikusten baldin badut, orain hizkuntza egungo premietarako egokitzeko darabiltzagun eginahaletan ikusten dut. Lehengo eta oraingoan arteko lokarriak, nik uste, behar baino maizago eten ditugulako. Horrela ez zait iruditzen beti antzinakoak gogoan eduki ditugunik, haiek ere zenbait sail bederen landu baitzituzten. Inon baino argiago ageri da hori, behar bada, gramatika saio berrietan. Harriet eta gainerakoak beste, Etxeberri Sarakoaren hiztegia, aski aberatsa eta egokia, ez dirudi ezagunegia denik gure artean. Eta hori gertatu da, bekatua larriago bihur dadin, Kintanak, zatika behinik-behin, haren izkribuak merke eta eroso argitaratzen ondoan.

Hiztegi orokorrak, ordea, mikro-hiztegi-lanen premian daude, eta dudako diren puntuak ez zaizkigu falta. Hona bat, nik ilun baino ilunago aurkitzen dudana. Badirudi, batetik, *a(h)itu* eta *ak(h)itu* (*akaitu*, etc.) elkarren ahaide direla; badirudi ere, bestetik, bata erabiltzen den lekuan ez dela bestea erabiltzen, eta alderantziz. Hots, muga jakina badutela, jakina baina guretzat ez ezaguna. Irakurri ditudan autore zaharretan, behintzat, eta ikertu ditudan euskalkietan, bata erabiltzen da ala bestea, ez bata edo bestea. Gerta daitekeena da, eta horrela gertatzen da segur aski, bildu ditudan argitasunak behar adina ez izatea. Autore batek, bederen, Duvoisin-ek, biok erabili ditu, eta ez batera. Zenbat aldiz eta zein lekutan erabili zituen Biblian K. Boudak erakutsi du: ik. *FLV* 4 (1972), 55. Zentzu bereizkuntza, ordea, berak hartu duen bidetik, nik bederen ez dut garbi ikusten. Har daitekeen biderik erosoena, noski, beste bat delako: badakigu nondik itzuli

zituen eta erraz ikus dezakegu *ahitu* edo *akhitu* bakoitzaren latinezko ordaina (latinezko iturburua) zein den. Hauzia erabat erabakitzeke, bada, aski genuke bi liburu aurrean eduki, bi hizkuntza (erdizka ez bada ere) jakin, eta zenbait ordu edo zenbait egun lan horretan eman.

Gramatika arloan ilunbetan dauden hauzien kontua ezin konta ahalekoa litzateke. Eguzki aldeko euskalkiak, hona bat, *-ra* eta *-rat* erabiltzen dituzte, baina ez nahaste. Zertan datza, ordea, bereizkuntza? Erabiltzen ez dugunok ez gaitu intuizio argiak gidatuko. Badakit hortaz mintzatu direla Gèze, Gavel eta beste (5), baina, batzuek eta besteek diotenak balio du, agian, oraingo eta joan den mendeko zuberorari bagagozkio, baita onenean ere Baxenabarrerako. Bistan da, haatik, Leizarraga, Axular bera, eskura orduko bestelakoa dela bereizkuntza. Nolanahi den igerri diodala uste dut, harrokeria badi-rudi ere, baina igertzea ez da frogatzea. Bestek ikus beza argi hoberik baduen.

Hona beste bat. Ez omen dira gauza bera *sartzen bada* eta *sar badadi*; ezta *sartzen (sartuko) balitz* eta *sar baledi* ere. Halabiz, eta bat nator. Baina Txillardegi lehiatu zen bata bestearengandik mugatzen eta ez zuen, ene iritziz, ondore zuzenik atera. Nolanahi ere den, hauzi horiek maizegi poliki-poliki eta arian-arian erabakitzen dira. Bat ez natorrela esatea ez dut aski. Hark eskaini digun giltzaren orde bestea bat, atea hobeki irekiko duena, eskaini behar nuke, eta ez naiz gauza.

Euskal sintaxis osoa, edo ia osoa, egiteke daukagu. Rudolf P. G. de Rijk-ek, bere tesisa euskal erlatiboaz egin zuenean M.I.T.-n, hauxe idatzi zuen: ez duela inork mugatu atzizki jator hori, *-(e)n*, noiz erabil daitekeen eta noiz ez. Saiatu, Etxaide zaharra, Euskaltzainburu luzaroan izan genuena, bakarrik saiatu dela mugatzen. Euskal perpausak dira *noan etxea berria da, natorren herria ez zait batere gustatu, dabilen bideak eramango du?* Bai ala ez? Zeurok esan.

Bada, ordea, sail honetan, ezin bestean erabaki behar genukeen istilua, irakaskuntzari eta ikaskuntzari dagokalako. *I*(mmediate) *C*(onstituents) direlakoetan egiten den perpausa-

(5) Ik. P. Lafitte, *Grammaire basque* 2, 6, 140: "La désinence *-rat* est très souvent réduite (honela dio) á *-ra*; beaucoup d'auteurs ne voient pas de différence de sens entre les deux formes; pourtant *banoa Pariserat* veut dire: "je vais á Paris, sans retour", et *banoa Parisera*: "je vais á Paris, simple aller et retour".

ren analisis hori, ez da agian, teoria mailan, nora ezekoa eta premiazkoa. Pedagogi mailan, ordea, horrelako zerbaitekin hasi ohi dira inguruko erdal gramatikak eta, hauen ondoan, baita egungo eguneko euskal gramatikak ere. Esan didatenez, honela bereizten omen da ikastoletan: sujeta, alde batetik, eta predikatua (predikua) bestetik. Har dezagun, bada, *gizonak ikusi du gizona* (edota *gizona gizonak ikusi du, gizonak gizona ikusi du, etc.*, akerraren adar okerrak bezala). Zein da hor euskarari dagokan lehen partiketa: *gizonak/ikusi du gizona* ala *gizonak ikusi du/gizona*? Galdera erantzuna bide dago eta, erantzun horren arabera, irakasten zaio askori. Baina nondik atera dugu erantzuna eta zein da erantzunaren funtsa? Ez ote dugu ihardespen hori inguruko hizkuntzetarik mekanikoki itzuli, euskararen izaera aski gogoan eduki gabe? Eta pentsatu ote dugu noraino eramango gaituen gramatika batera ala bestera erantzuteak?

Esan beharrik ez euskal literatura ez dugula behar bezain sakonki aztertua, batez ere azken aldietakoa, behar bada hurbilago dugularik ezagunagotzat daukagulako. Deus guti daki-gu, halaz guztiz, bai mamiaren eta bai formaren aldetik. Formalistak, izan ere, ez dira berriki baizik sartu gurean eta mamia, beti batean iraun duelakoan, ez dugu behar zen arretaz ikertu. Ahaztuxe ere daukagu zentsurak, baina etxeko zentsurak, ixildu eta izkutatu dituenak. Honetan ageri da gure historiografiak hezur-muinetaraino sarturik daraman gaitza: ahulezia, kasik ezereza. Kondaira, ordea, hizkutzarena ez bada, ez da Euskalzaindiaren eginbidea eta ez diot esanari deus gehituko.